

ikaAPPsi ingurumenagatik!

Zure inguruneko landareak ezagutzen dituzu? Baten baten berri eman nahi duzu? Identifikaziorako gida asko daude baina ...

Landare, zuhaitz eta zuhaixkak ikasi eta ezagutarazteko esplora ezazu

PlantNet proiektua


Munduko eskualde ezberdinetako partner-en eskutik eta hamaika pertsonen banakako ekarpenekin, **PlantNet-ek espezie katalogo zabal eta zehatza dauka.** Izenengatik, eskualdeagatik edo banakakoek egindako ekarpenengatik aurkitu daitezke

Espezie bakoitzeko; atal guztien argazki bilduma, deskribapenak, informazio osagarria duten estekak, baita mundu mailako hedapen mapak topa daitezke.

Horrez gain, bestelako gaikako edo eskualde-mikroproiektuak daude.

Zeurea martxan jarri ezazu!

Ez duzu landaretza ezagutu beharrik; argazki baten bitartez identifikatu dezakezu. Hasiera-hasieratik hasteko, lehenik zure inguruko landare arruntak ikasi itzazu. Ondoren, espezie berriak banaka gehitzen jarraitzeko.



Animatzen baldin bazara zure ekarpenak egin ditzakezu; igo argazki bat eta eman espeziea identifikatzeko lagungarriak diren datuak; data, tokia, espeziea (uste duzuna) ...

